

Alarguntasun-pentsioa eta izatezko bikoteak: Izatezko bikotea izatea eta izatezko bikotea badela egiaztatzea aurrebaldintza gisa

FRANCISCO JAVIER ARRIETA IDIAKEZ
Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko
irakasle doktorea, Deustuko Unibertsitatea
eta AVD/ZEA Zuzendaritzaren kidea

SUMARIO: 1. SARRERA. 2. EZKONTZAKO AFEKTIBITATE-HARREMANEN ANTZEKOAK IZATEA. 3. EZKONTZEKO ERAGOZPENIK EZ IZATEA. 4. BESTE PERTSONA BATEKIN EZKONDUTA EZ IZATEA. 5. ELKARBIZITZA EGONKOR ETA NABARIA IZATEA, JUSTU KAUSATZAILEA HIL AURREKO BOST URTEETAN JARRAIAN, GUTXIENEZ. 6. ELKARBIZITZA ETA IZATEZKO BIKOTEA EGIAZTATZEA. BIBLIOGRAFIA

1. SARRERA

Gaur egun, arestian aipatu idazkera-aldaketaren ondorioz, GSLOTBren 174.3 artikuluan jaso da izatezko bikotearen definizioa, alarguntasun-pentsiorako eskubidea izan dadin. Definizio horren arabera, «izatezko bikotea izango da ezkontzeko eragozpenik izan ez eta beste pertsona batekin ezkonduta ez daudenek eraturakoa, ezkontzako afektibitate-harremanen antzekoekin, betiere, horiek egiaztatzen badute, kasuan kasuko erroldatze-ziurtagiriaren bidez, elkarbizitza egonkor eta nabaria izan dutela, justu kausatzailea hil aurreko bost urteetan jarraian, gutxienez. Izatezko bikotea badela egiaztatuko da, bai bikotearen bizilekuari dagokion autonomia-erkidegoko edo udaleko berariazko erregistroan bikotea inskribatuta dagoela dioen ziurtagiriaren bidez, bai bikote hori eratu izana jaso duen agiri publikoaren bidez. Aipatu inskripzioa nahiz kasuan kasuko agiri publikoa gauzatu beharko dira, gutxienez, kausatzailea hil baino bi urte lehenago.

Zuzenbide zibil propioa duten autonomia-erkidegoetan, aurreko idatz-zatiak aipatu elkarbizitza-betekizuna gauzatura, izatezko bikotetzat hartzea eta berau egiaztatzea bertako legeriak ezarritakoaren arabera egingo da».

Egin-eginean ere, definizio horretara betekizun desberdinak bildu direnez, jarraian, betekizun horiei erreparatuko zaie.

2. EZKONTZAKO AFEKTIBITATE-HARREMANEN ANTZEKOAK IZATEA

Ezkontzaz kanpoko elkarbizitza oinarritu behar izateak ezkontzako afektibitate-harremanen antzekoetan agerian uzten du legegilearen asmoa. Bestela esanda, legegileak izatezko bikote egonkorren edo *more uxorio* elkarbizitzaren aldeko apustua egin du¹. Beraz, bazter utzi du Kataluniako uztailaren 29ko 25/2010 Legeak, Kataluniako Kode Zibilaren bigarren liburukoak, pertsonari eta familiari buruzkoak², araututako erakundea, hots, «elkarri laguntzeko elkarbizitza edo elkarbizitza solidarioa» (240-1. artikulua eta hurrengoak). Bada, elkarbizitza-mota horretan, interes nagusia da elkarrekin bizi diren bi pertsona edo gehiagok elkarri laguntzea, gastu erkideak eta etxeko lana banatuz, bizitza-baldintzak hobetze aldera³. Bestalde, Espainiako Kode Zibilak bikote homosexualak ezkontzeko eskubidea dutela aitortu zuenetik (44.2 artikuluan), argi dago «ezkontzako afektibitate-harremanen antzekoak» esapideak bere baitara biltzen dituela sexu bereko bikoteak ere.

Edonondik begira dakiola ere, betekizun hori ezin da oso-osoan egiaztatu, eta betetzen dela ulertu behar da, bikoteko kideek duten jokatubidea aintzat hartuta⁴.

3. EZKONTZEKO ERAGOZPENIK EZ IZATEA

Betekizun hori dela eta, Kode Zibilaren 44.etik 48.era arteko artikuluetatik ondorioztatzen da izatezko bikotearen kideek hurrengo betekizunak bete behar dituztela, nahiz eta autonomia-erkidego batzuetan, izatezko bikoteei buruzko legerian, horiekin bat ez datozen inguruabarrak ezarri:

¹ ALARCÓN CASTELLANO, M.M. eta ROLDÁN MARTÍNEZ, A. (2009, 100-101. orr.).

² 2010eko abuztuaren 21eko EAO, 203. zk.

³ Esate baterako, bazter utzi behar da lagunen arteko arazoietan, ikasketa-arazoietan, kultura-arazoietan edo antzekoetan oinarritutako elkarbizitza [ikusi POQUET CATALÁ, R. (2013, 165. or.)].

⁴ POQUET CATALÁ, R. (2013, 165. or.).

- (a) Ezkontza gauza dadin, ezkontideen arteko adostasuna behar denez, euretariko bakoitzak Kode Zibilak ezarritako gaitasun-betekizunak egiaztatzea; izan ere, edozeinek urritasun edo anomalia psikikoak baditu, medikuei irizpena eskatu behar zaie, pertsona horrek adostasuna emateko duen gaitasunari buruz (56. artikulua). Halatan, nahitaezkoa izango da izatezko bikoteko kideak ezgaiak ez izatea, epai batek hala adierazi duelako (199 eta 1263. artikulua).
- (b) Adin nagusikoak edo emantzipatutako adingabeak izatea.
- (c) Ahaidetasunik ez izatea, euren artean, zuzeneko lerroan, odol bidez edo adopzioaren bidez, eta, euren artean, hirugarren gradurainoko albokoak ere ez izatea, odol bidez.
- (d) Euretarik edozeinen ezkontidea doloz hiltzeagatik, egile edo sopikun gisa kondenatuak ez izatea.
- (e) Ezkontza-loturarik ez izatea. Hortaz, bikoteko bi kideak izango dira ezkongabeak, alargunak, dibortziatuak edo ezkontza deuseztatuta dutenak.

Edozein kasutan, ulertu behar da izatezko bikoteen kasuan ere aplikagarri dela ezkontza-eragozpenak lekatzearen inguruan Kode Zibilaren 48. artikulua bigarren idatz-zatiak ezarritakoa⁵. Izan ere, ezkontzeko eragozpenen araubidea oso-osoan aplikatu behar da (erregela orokorrek nahiz salbuespenekin), kontrakoa ez litzatekeelako zilegi izango⁶. Manu horren arabera, «alderdiak hala eskatu, eta horretarako arrazoi zuzena izanez gero, lehen auzialdiko epaileak ken ditzake albokoen arteko hirugarren graduko eragozpenak, bai eta adinaren eragozpena ere, hama-lau urtetik aurrera».

⁵ Iritzi berekoak dira, besteak beste, MOLINS GARCÍA-ATANCE, J. (2008, 86. or.) eta MOLINER TAMBORERO, G. (2012).

⁶ MELLA MÉNDEZ, L. (2012).

4. BESTE PERTSONA BATEKIN EZKONDUTA EZ IZATEA

Badirudi betekizun hori soberan dagoela; izan ere, bikoteko kideren bat ezkonduta balego, beste pertsona batekin ezkontzeko eragozpen-arrazoia legoke, eta aurreko betekizunean ezarri denaren arabera, izatezko bikotea eratzeke kideek ez dute izan behar ezkontzeko eragozpenik. Deigarria da, ordea, legegileak ez debekatzea izatezko bikoteko kideek beste pertsona batekin bikote-harreman egonkorra izatea. Hori horrela balitz, praktikan, aldi berean, izatezko bi bikote izango lirateke, baina bietariko bati begira ezin izango litzateke egiaztatu justu kausatzailea hil aurretik jarraikako elkarbizitza egon denik⁷.

5. ELKARBIZITZA EGONKOR ETA NABARIA IZATEA, JUSTU KAUSATZAILEA HIL AURREKO BOST URTEETAN JARRAIAN, GUTXIENEZ

Izatezko bikotearen elkarbizitza egonkorra izan beharrak bazter uzten ditu lantzean behingo harremanak (oporretan, asteburuetan...). Alabaina, elkarbizitza egonkorra ez da hautsiko arrazoi objektiboen ondorioz denboraldi batez bikotea ezin denean elkarrekin bizi. Halako arrazoi artean nabarmendu behar dira familia- eta lan-arrazoiak⁸. Horrelako kasuetan nahiko litzateke arrazoi horiek justifikatzearekin eta bikotea bizileku berean erroldatuta dagoela egiaztatzearekin. Ildo horretatik, egoera berezia sortzen da bikoteko kideren bat espetxean dagoenean, epe luzez. Egoera horri dagokionez, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren (GSINren) 2008ko apirilaren 11ko Irizpidea hartu behar da kontuan. Hartara, bikoteko kideren bat espetxean egoteak berez ez ditu hausten afektibitate-harremanak. Baina kondena bete bitarteko denbora ezin da zenbatu elkarbizitza-ondoreetarako, elkarbizitza-

⁷ ALARCÓN CASTELLANO, M.M. eta ROLDÁN MARTÍNEZ, A. (2009, 102. or.).

⁸ Esangura horretan, ikusi DE AMUNÁTEGUI RODRÍGUEZ, C. (2002, 68. or.).

rik ez baitago⁹. Beraz, afektibitate-harremani eutsiz gero, elkarbizitzaren iraupena zenbatzeko kontuan hartu behar dira espetxean sartu aurreko denbora eta espetxetik atera ondorengo denbora.

Edonondik begira dakiola ere, salbuespen-egoera horiek bazter utzita, ezin dira batu elkarrekin bizitako aldi desberdinak¹⁰.

Elkarbizitza nabaria zer den ulertzeko, kontuan hartu behar da jurisprudentziak aspaldi adierazitakoa *more uxorio* elkarbizitzaren betekizunak ezartzean. Hartara, elkarbizitza nabaria izan dadin, nahitaezkoa da berau gauzatzea «kanpora begira eta modu publikoan, interesdunek elkarrekin jarduten dutela egiaztatzeko moduan, etxe berean elkarrekin biziz, interes eta helburuak partekatuz»¹¹. Beraz, elkarbizitza ezin da ezkutukoa izan.

Bost urteak zenbatzeari dagokionez, kontuan hartu behar da legegilearen asmoa, hau da, bikotearen harremanak egonkorrak direla egiaztatzea. Halatan, asmo hori oinarri, ezkontza-loturarik ez izateko betekizuna bikotea modu formalean eratzeko unean bakarrik bete behar da, hots, bikotea Erregistroan inskribatzen denean edo bikotea eratzeko borondatea agiri publikoan adierazten denean¹². Bestela esanda, baliteke inskripzioa edo agiri publikoa egin aurretik izatezko bikoteko kideek elkarbizitza izatea, nahiz eta euretariko bat edo bi-biak oraindik, modu formalean bederen, beste pertsona batekin ezkontuta egon (normalean, dibortziatzeko, banantzeko edo ezkontza deuseztatzeko prozesuaren izapide edo tramiteak ari-

⁹ Ez dira kontuan hartu behar hitzez nahiz idatziz bikoteak izan dezakeen aldizkako komunikazioa, bisita-aldiak, abokatuekin bi-biek duten elkarlana edota presoak baimen-aldietan etxebizitza erkidean egindako denbora. Halakoak, ordea, balioko dute afektibitate-harremanek bere horretan jarraitu dutela egiaztatzeko.

¹⁰ Esangura horretan, LAMARCA I MARQUÉS, A. eta ALASCIO CARRASCO, L. «Parejas de hecho y pensión de viudedad» (2007, p. 16).

¹¹ 1992ko maiatzaren 18ko AGE ren 4. Z.O. (RJ 1992\4907).

¹² Ikusi POQUET CATALÁ, R. (2013, 167. or.). Autore horrek nabarmendu duen bezala, une horretan nahitaezkoa da bikoteko kideak izatea ezkongabeak, alargunak, dibortziatuak edo ezkontza deuseztatuta dutenak.

bidean izateagatik). Horrenbestez, elkarbizitza horrek iraundako denbora bilduko litzateke izatezko bikotetzat hartzeko egiaztatu behar den bost urteko epera¹³. Azken buruan, G SINren 2012ko irailaren 7ko Irizpenak hori berori adierazi du, Auzitegi Gorenak ezarritakoa aintzat hartuta¹⁴. Horren arabera, ezkontza-loturarik ez izateko betekizuna ez da galdatu behar kausatzailea justu hil aurreko bost urteetan (nahitaez justifikatu beharrekoak direnak), ezpada izatezko bikotea eratzeko unean, eta, jakina, eratze-une horretatik aurrera, kausatzailea hil arte. Hain justu, izatezko bikotea eratzeko inskripzioa edo agiri publikoa egin behar da, eta alarguntasun-pentsioa izan dadin, nahitaezkoa da inskripzioa edo agiri hori egitea kausatzailea hil baino bi urte lehenago, gutxienez. Horrenbestez, bi urte horietan ere ezkontza-loturarik ez izateko betekizuna bete behar da.

Azkenik, ez da ahaztu behar bost urteko edo gehiagoko elkarbizitza izan behar dela justu kausatzailea hil aurrekoa. Bada, datu esanguratsua da hori. Areal ere, baliteke alarguntasun-pentsiorako eskubiderik ez izatea urte askotan izatezko bikotea eratu duten pertsonentzako, baldin eta pertsona horiek elkarbizitza hautsi badute kausatzailea hil aurretik, edozein unetan, baita heriotza-bezperan ere¹⁵.

6. ELKARBIZITZA ETA IZATEZKO BIKOTEA EGIAZTATZEA

Bateragarriak dira jarraian azalduko diren bi betekizunak. Egin-eginean ere, bi dira kontuan hartu beharreko epeak. Batetik, elkarbizitza egonkor eta nabaria izan behar da, gutxienez, bost urtekoa, justu kausatzailea hil au-

¹³ Esangura horretan, ALARCÓN CASTELLANO, M.M. eta ROLDÁN MARTÍNEZ, A. (2009, 105. or.). Bada, autore horiek GSLOTBren 174.2 artikularen bigarren idatz-zatiak esandakoan oinarritzen dira, nabarmentzeko «elkarbizitza» egitate bat dela, eta ez egoera juridiko bat.

¹⁴ Ikusi, besteak beste, Auzitegi Gorenaren 4. salako 2011ko uztailaren 14ko doktrina bateratzeko epaia (3857/2010 erre. zk.), 2011ko azaroaren 8ko doktrina bateratzeko epaia (796/2011 erre. zk.) eta 2012ko martxoaren 13ko doktrina bateratzeko epaia (4620/2010 erre. zk.).

¹⁵ ALARCÓN CASTELLANO, M.M. eta ROLDÁN MARTÍNEZ, A. (2009, 106. or.).

rretik. Bestetik, izatezko bikotea eratzeko inskripzioa edo agiri publikoa egin behar da kausatzailea hil baino bi urte lehenago, gutxienez.

GSLOTBren 174.3 artikulua hitzez-hitzez kotasunari helduta, «elkarbizitza» hori soil-soilik egiazta daiteke kasuan kasuko erroldatze-ziurtagiriaren bidez. Horrenbestez, bikoteko bi kideak egoitza berean egon behar dira erroldatuta. Eta, horren ondorioz, badirudi bikoteko kideek, urteetan zehar, bizileku erkidea aldatu badute, ondoz ondoko erroldatzeak aurkeztu beharko dituztela.

Hitzez-hitzez kotasun hori gorabehera, eta GSLOTBren 174.3 artikulua ezarritako bi betekizunak nahastu ez daitezten, egiatan, aintzat hartu behar da jurisprudentziak nahiz GSINren irizpenek adierazitakoa.

Horrela, Auzitegi Gorenaren 4. salako 2010eko azaroaren 12ko doktrina bateratzeko epaiaren arabera¹⁶, «izatezko bikoteak bost... urtez iraun duela egiaztatu ahal izango da, berebat, Zuzenbidean onartutako frogabideetatik edozein baliatuta, batik bat, agiri bidezko frogak badira horiek, eta behar besteko garrantzia badute, erakunde kudeatzaileak edo, hala denean, epaitu behar duenak uste izateko betekizun hori betetzen dela, eta ez soil-soilik bikotearen kideen egoitzari dagokion erroldatze-ziurtagiriaren bidez»¹⁷.

Hain zuzen, GSINren 2011ko otsailaren 10eko Irizpenak jurisprudentzia horri jarraituz adierazi du erroldatze-ziurtagiriaren betekizuna *ad probatiomen* dela. Gainera, horrek berebiziko garrantzia du GSINentzako: aurkako frogak ahalbidetzen du bere mesederako¹⁸. Bukatzeko, jurisprudentziak adierazitakoaren ildotik, berebiziko garrantzi juridikoa airtortu die idatzizko agiriei, besteak beste, udalaren ziurtagiriei, bankuko

¹⁶ RJ 2010\8836. Epai horrek gogoan hartzen ditu, halaber, hurrengo epai hauek, denak ere doktrina bateratzekoak: Auzitegi Gorenaren 4. salako 2010eko maiatzaren 25eko (RJ 2010\3610), 2010eko ekainaren 24koa (RJ 2010\3613) eta 2010eko uztailaren 6koa (RJ 2010\6786).

¹⁷ 3. Z.O.

¹⁸ Bada, elkarbizitza egiaztatzeko edozein frogabide baliatu ahal izateak ahalbidetzen du erroldatze-ziurtagiriak dioenaren aurka egitea; izan ere, erroldatze-ziurtagiria akasduna

ordainagiriei, Administrazio publiko desberdinetako jakinarazpenei, nominei eta abarrei.

Auzitegi Gorenaren 4. salako 2012ko maiatzaren 10eko doktrina bateratzeko epaiak gaur egun indarrean dagoen jurisprudentzia ezarri zuen¹⁹. Hiru dira jurisprudentzia horretan nabarmendu beharreko puntuak²⁰:

(a) GSLOTBren 174.3 artikuluan ezarritako bi betekizunak, hau da, «izatezko bikotea existitzea» eta «elkarbizitza egonkor eta nabaria izatea» desberdinak dira, eta bi-biak bete behar dira bizirik irauten duen bikoteari alarguntasun-pentsioa aitortzeko.

(b) Manu berean, bi betekizun horiek egiaztatzeke ezarritako erregelak ere desberdinak dira.

(c) «Izatezko bikotea badela» egiaztatu behar da, GSLOTBren 174.3 artikuluekin bat etorritik, hala izatezko bikoteen «berariazko erregistroko inskripzioaren bidez», nola bikotea «eratu dela egiaztatzen duen agiri publikoaren» bidez²¹. Horrek legegaren borondatea agertzen du, alegia, alarguntasun-pentsioa erregularizatutako izatezko bikoteei baino ez aitortzea.

izan daiteke, garai batean egiazkoa izan arren, gerora ez agertzeagatik afektibitate-harremanetan oinarritutako elkarbizitza [BORRAJO DACRUZ, E. (2011)].

¹⁹ RJ 2012\6502. Egia esan, epai horrek berea egin zuen alde aurreko beste epai batzuek ezarritako jurisprudentzia. Epai horien artean hurrengoak daude: Auzitegi Gorenaren 4. salako 2010eko uztailaren 20ko doktrina bateratzeko epaia (3715/2009 erre. zk.), 2011ko apirilaren 27ko doktrina bateratzeko epaia (2170/2010 erre. zk.), 2011ko azaroaren 22ko doktrina bateratzeko epaia (433/11 erre. zk.), 2011ko abenduaren 20ko doktrina bateratzeko epaia (1147/2011), 2011ko abenduaren 26ko doktrina bateratzeko bi epaiak (2093/2011 erre. zk. eta 245/2011 erre. zk.), 2012ko urtarrilaren 23ko doktrina bateratzeko epaia (1929/2011 erre. zk.) eta 2011ko ekainaren 15eko doktrina bateratzeko epaia (3447/2010 erre. zk.).

²⁰ 5. Z.O.

²¹ Kontuan hartu behar da, Familia Liburuak ez duela egiaztatzen izatezko bikotea dagoenik, nahiz eta agiri publikoa izan [ikusitako Auzitegi Gorenaren 4. salako 2012ko urtarrilaren 23ko doktrina bateratzeko epaia (2. Z.O. (1929/2011 erre. zk.)].

Ildo beretik doa GSINren 2012ko irailaren 7ko Irizpena ere. Irizpen horren arabera, izatezko bikotea bakarrik egiazta daiteke bikote hori berriazko erregistro publikoan inskribatuta dagoela dioen ziurtagiriaren bidez edo bikotea eratu dela dioen agiri publikoaren bidez; inskripzio edo agiri publiko hori *ad solemnitatem* justifikazioa da, eta Gizarte Segurantzaren ondoretarako bikotea eratzen duena. Horren ondorioz, ezin ordeztu daiteke *more uxorio* elkarbizitza egon dela egiaztatzearekin. Baina kausatzailea hil baino, gutxienez, bi urte lehenago izatezko bikotea eratzeko betekizun horrezaz landa, bikote hori eratu duten pertsonen arteko elkarbizitza galdatu behar da. Are gehiago, elkarbizitza horrek iraun behar du, gutxienez, bost urte justu kausatzailea hil aurretik. Bada, betekizun hori egiazta daiteke elkarbizitza egon dela uste izateko behar adinako indarra duen frogabideetatik edozein baliatuta, eta ez erroldatze-ziurtagiriaren bidez bakarrik.

Eta ildo beretik doa Auzitegi Gorenaren 4. salako 2013ko uztailaren 16ko doktrina bateratzeko epaia ere²². Hartara, argiro berezi ditu bi betekizunok²³: bateko, betekizun materiala, hots, «elkarbizitza» egonkorra eta nabaria izatea; besteko, betekizun formal (ad *solemnitatem*), hots, izatezko bikotea eratzea, kausatzailea hil baino bi urte lehenago, gutxienez. Eta, bereizketa hori oinarri, hurrengoa ondorioztatu du: GSLOTBren 174.3 artikulua araututako alarguntasun-pentsioa ez da bost urteko elkarbizitza egiaztatzen duten izatezko bikote guztientzako, baizik eta, elkarbizitzaren betekizuna beteta izateaz gain, kausatzailea hil baino, gutxienez, bi urte lehenago «erregistratuta» dauden (edo notarioaren aurrean euren lotura gauzatuta duten) bikoteentzako bakarrik. Beste hitz batzuekin esanda, alarguntasun-pentsiorako eskubidearen titulartasuna «zuzenbideko bikoteei» dagokie, eta ez «izatezko bikote» hutsei.

²² RJ 2013\6583. Egia esan, bereak egin ditu Auzitegi Gorenaren 4. salako 2011ko abenduaren 26ko doktrina bateratzeko epaiaren arrazoiak (ikus 2. Z.O.) (245/2011 erre. zk.).

²³ 2. Z.O.

Orain artekoak argituta, ez da ahaztu behar GSLOTBren 174.3 artikularen azken idatz-zatiak ezarritako salbuespena, izatezko bikotearen definizioari eta halakoa badela egiaztatzeari dagokienez. Bada, salbuespen hori dela eta, «zuzenbide zibil propioa duten autonomia-erkidegoetan... aipatu elkarbizitza-betekizuna gauzatuta, izatezko bikotetzat hartzea eta berau egiaztatzea bertako legeriak ezarritakoaren arabera egingo da».

Salbuespen horren inguruan, kontuan hartu behar da Auzitegi Gorenaren 4. salako 2011ko abenduaren 14ko Autoak konstituzio-aurkakotasuneko gaia ezarri zuela²⁴. Auzitegi Gorenaren ustez, manu horrek igortzen duenez Zuzenbide zibil propioa duten autonomia-erkidegoetako legeria berezira, eta legeria berezi horietako batzuek ahalbidetzen dutenez Zuzenbidean onartutako frogabideetatik edozein baliatuta egiaztatzea Gizarte Segurantzako alarguntasun-pentsioa eskuratzeko izatezko bikotea badela, praktikan, autonomia-erkidegoetan baldintza desberdinak daude izatezko bikotea badela onartzeko, eta horrek berarekin dakar berdintasunerako eskubidea urratzea. Hurrean ere, alarguntasun-pentsioa izateko egiaztatu behar da izatezko bikotea badela, eta egiaztatze hori egiteko aintzat hartu beharreko betekizunak dira bikotearen bizilekuari dagokion autonomia-erkidegoaren araberrakoak.

Edonola ere, Konstituzio Auzitegiak konstituzio-aurkakotasuneko gai hori ebatzi arte ez denez hori argituko, manu horren inguruko interpretazioari ekingo zaio jarraian, gaur egun duen idazkera abiapuntu.

Lehenengo eta behin, argitu behar da zuzenbide zibil propioa duten autonomia-erkidegoak direla Aragoi, Balear Uharteak, Katalunia, Galizia, Nafarroa eta Euskal Autonomia Erkidegoa²⁵. Hori berori ondorioztatzen da Konstituzioak, Konstituzio Auzitegiak eta Autonomia Estatu-tuek ezarritakotik.

²⁴ RJ\2012\3497.

²⁵ Esangura horretan ikusi RODRÍGUEZ CARDO, I.A. (2011). Hain justu, autore horrekin bat egiten dugunez, haren arrazonamenduak gureak egingo ditugu.

Konstituzioaren 149.1.8 artikulua estatuari eratziki dio eskumen esklusiboa «legegintza zibilari» dagokionez, baina salbuespen bat jaso du, autonomia-erkidegoek zuzenbide zibilak, forudunak nahiz bereziak, irau-narazi, aldarazi eta garatu ahal izango dituztelako, halakoak direnetan. Edo-zein kasutan, estatuaren eskumenekoak dira «arau juridikoen aplikazio eta eragingarritasunari buruzko erregelak; ezkontzeko formei dagozkien ha-rreman juridiko-zibilak; erregistro eta agerkari publikoen antolakuntza; kontratuetako betebeharren oinarriak; lege-gatazkak konpontzeko arauak eta zuzenbidearen iturriak zehazten dituztenak, betiere, azken kasu horre-tan, foru-zuzenbidearen edo zuzenbide bereziaren arauak errespetatuz».

Konstituzioaren 149.1.8 artikulua ez du «zuzenbide zibil propioa» aipatu, ezpada zuzenbide zibil «forudunak nahiz bereziak». Aitzitik, esa-pide horiek sinonimoak dira, eta hala jaso da Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentzian²⁶, bai eta jurisprudentzia arruntean ere²⁷.

Bestalde, autonomia-erkidego guztiek ez dute «zuzenbide zibil propiorik», ezpada soil-soilik hala ezarri dutenek euren autonomia-estatu-tuetan. Arean ere, Konstituzioaren 149.1.8 artikulua argia da horren in-guruan, «halakoak direnetan» dioenean. Autonomia-estatutu desberdinak aztertuta, erraz antzeman daiteke zein diren eskumen hori euren gain hartu duten autonomia-erkidegoak: Aragoi, Balear Uharteak, Katalunia, Valentiako Autonomia Erkidea, Galizia, Nafarroa eta Euskal Autonomia Erkidegoa. Beste autonomia-estatutu batzuek «zuzenbide zibila» aipatu beharrean «ohiturazko zuzenbidea» aipatu dute. Bada, horri begira ere egin daitezke legeak, hain zuzen, berau irauarazteko. Hori berori jaso dute hurrengo autonomia-erkidegoetako autonomia-estatutuek: Astu-rias, Gaztela eta Leon, Extremadura eta Murtzia.

²⁶ Besteak beste, Konstituzio Auzitegiaren martxoaren 29ko 56/1990 epaia; irailaren 28ko 121/1992 epaia; martxoaren 12ko 88/1993 epaia; maiatzaren 6ko 156/1993 epaia; urriaren 16ko 236/2000 epaia; martxoaren 25eko 47/2004 epaia.

²⁷ Besteak beste, Auzitegi Gorenaren 1. salako 2000ko urtarrilaren 28ko epaia (1262/1995 erre. zk.) eta Auzitegi Gorenaren 3. salako 2008ko urtarrilaren 29ko epaia (247/2004 erre. zk.).

Zernahi gisaz, aztergai dugun gaiari dagokionez, «ohiturazko zuzenbidea» ezin da «zuzenbide zibil propiotzat» hartu. «Ohiturazko zuzenbidea» estatuko legeria zibilaren unean-uneke salbuespen gisa ulertu behar da. Halako salbuespenek ez dute osatzen behar adinako garrantzia duen arau-multzorik, ez behintzat estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean eskumen-gatazkak eragiteko bestekoak, eta are gutxiago Gizarte Segurantzako Sistemaren eragina izateko. Esangura horretan, eztabaidaezina da Asturiasek, Gaztela eta Leonek eta Murtziak ez dutela «zuzenbide zibil propiorik». Haatik, Aragoi, Balear Uharteetan, Katalunian, Galizian, Nafarroan eta Euskal Autonomia Erkidegoan, ondoreak izan ditza-ke GSLOTBren 174.3 artikulua salbuespenak.

Valentziako Autonomia Erkidegoko autonomia-estatutuak bere gain hartu du zuzenbide zibilaren gaineko eskumena. Hala eta guztiz ere, Valentzian ez dago legegintza zibilaren aurrekari historikorik, zuzenbide zibil forudun nahiz bereziekin erkatze modukorik behinik behin. Ohiturazko arauak berezia dago, gehienbat, uraren gainekoa. Labur-zurrean esanda, Valentziako Autonomia Erkidegoak ez du zuzenbide zibil propiorik.

Extremadurari dagokionez, berezitasun bakarra da Baylioko Forua. Horrek ezkontzaren araubide ekonomiko berezia arautu du, baina ez du zuzenbide zibil propioaz hitz egiteko beste garrantzirik. Ezkontzaren araubide ekonomiko arruntaren ñabardura edo berezitasuna besterik ez da.

Laburbilduz, «zuzenbide zibil propioa» eta «ohiturazko arauak» bereiztea funtsezkoa da GSLOTBren 173.4 artikulua egindako igorpenaren norainokoa zehazteko.

Estatuko legegileak aintzat hartu nahi du autonomia-erkidegoetako arautegia, betiere, horrek berezitasun nabarmenak ezar ditzakeenean familia-zuzenbidearen eraketan, eta, zehatzago, bikote-harremanetako eskubide eta betebeharrak modula ditzakeenean. Izatezko bikoteei buruzko legeak ez dira bakarrik zuzenbide zibil propioa duten autonomia-erkidegoetan onetsi. Halako berezitasunak ez dituztenetan ere onetsi dira.

Hortaz, estatuko legegileak aztertzen ari garen gaian bereizketa hori egin badu, hori hala da uste duelako zuzenbide zibil propioak zeresana izan dezakeela familiaren gaian.

Autonomia-erkidego batzuek eutsi diete ohiturazko zuzenbideko arauari, baina halakoak, gehienbat, nekazaritza-, basozaintza- eta abeltzaintza-esparrukoak dira, eta ez dituzte arautzen familia-eskubide eta -betebeharrak, autonomia-erkidego batzuetako zuzenbide zibil propioak egin antzera, askotariko berezitasunak ezartzean, konparazio baterako, ezkontzako araubide ekonomikoari, ezkontza desegitearen ondorioei edo oinordetza-eskubideei begira.

Ikuspuntu horretatik, GSLOTBren 174.3 artikulua igortzen du Aragoik, Balear Uharteak, Kataluniak, Galiziak, Nafarroak eta Euskal Autonomia Erkidegoak izatezko bikoteen inguruan egindako arauketetara bakarrik.

Gainera, GSLOTBren 174.3 artikulua zentzua izan dezan beharrezkoa da beste baldintza bat betetzea, hots, kasuan kasuko autonomia-erkidegoko izatezko bikoteei buruzko araua beren-beregi oinarritzea autonomia-erkidego horretako zuzenbide zibil propioan, eta arau horren edukia bat etortzea oinarri juridiko horrekin.

Halatan, zuzenbide zibil propiorik gabeko autonomia-erkidegoetan, izatezko bikoteei buruzko arautegia justifikatzen da berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioak abiapuntu hartu eta familia, eta, batik bat, adingabeak babesteko xedearekin. Hori berori gertatzen da Andaluzian, Asturiasen, Kanarietan, Kantabrian eta Madrilen, eta, baita ere, Extremaduran eta Valentziako Autonomia Erkidegoan, arestian azaldutakoaren ildotik argi utziz azken bi autonomia-erkidego horiek ez direla biltzen GSLOTBren 174.3 artikulura.

Zuzenbide zibil propioa duten autonomia-erkidegoetan, aldiz, forudunak izatean edo berezitasunak izatean oinarritzen dira izatezko bikoteen arauak.

Behin GSLOTBren 174.3 artikulua zein autonomia-erkidegoei erreferentzia egiten dien justifikatuta, kontuan hartu behar da igorpenaren objektua dela «izatezko bikotetzat hartzea eta berau egiaztatzea». Beraz, igorpenak «izatezko bikotearen» definizioa hartzen du bere baitan. Eta definizio horri begira, izaera orokorrarekin GSLOTBren 174.3 artikulua ezartzen duen betekizun bakarra elkarbizitzarena da. Hori dela eta, elkarbizitza, kasu guztietan, alarguntasun-pentsioa eskuratzeari dagokionez, izan behar da egonkorra; nabaria; jarraikakoa, justu kausatzailea hil aurreko bost urteetan, gutxienez; eta justifikatutakoa, erroldatze-ziurtagiriaren bidez edo zuzenbidean onartutako edozein frogabide baliatuta²⁸. Hori gorabehera, zuzenbide zibil propioa duten autonomia-erkidegoek gainerako betekizunak aldarazi edo ezaba ditzakete²⁹. Hurrean ere, GSLOTBren 174.3 artikulua autonomia-erkidego horiei ahalbidetzen die alarguntasun-pentsioaren onuradun izango den izatezko bikotea definitzea. Bestalde, igorpenarekin, izatezko bikotearen definizioa ez ezik, izatezko bikotea badela nola egiaztatu behar den ere zuzenbide zibil propioa duten autonomia-erkidegoen esku geratzen da. Hori dela eta, litekeena da autonomia-erkidego batzuetan, alarguntasun-pentsioa eskuratu ahal izateko, beharrezkoa ez izatea izatezko bikotea inskribatzea edo berau agiri publikoaren bidez eratzea³⁰.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, kontuan hartu behar da maiatzaren 7ko 2/2003 Legea, izatezko bikoteak arautzekoa³¹. Horrela, lege horren arabera, «izatezko bikotea da bi pertsonaren arteko elkartze askearen ondorioa; pertsona horiek adinez nagusi edo adingabeko emantzipatuak izan behar dute, gaitasun osoa izan behar dute, eta ezin dute euren artean lerro zuzeneko odol- edo adopzio-ahaidetasunik eduki, ez eta al-

²⁸ Ildo horretatik ikusi TOSCANI GIMÉNEZ, D. (2008, 76. or.).

²⁹ Ikusi Auzitegi Gorenaren 4. salako 2012ko otsailaren 28ko doktrina bateratzeko epaia (1768/2011 erre. zk.).

³⁰ DESDENTADO DAROCA, E. (2009, 126-127. orr.).

³¹ 2003ko maiatzaren 23ko EHAA, 100. zk.

boko lerroko bigarren mailako odol-ahaidetasunik ere. Harreman sexual edo afektiboa izan behar dute elkarren artean, eta berdin izango da pertsona horiek sexu berekoak edo desberdinekoak izatea. Gainera, bikoteko ki-deek, ez bata ez besteak, ezin dute ezkontza edo izatezko bikotearen bidezko loturarik izan beste inorekin ere» (2. 1 artikulua). Gainera, legea aplikatu dadin, nahitaezkoa da bikoteak inskribatzea Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroan³². Areago, erregistro horretan inskribatutako bikoteak bakarrik joko dira legez eraturakotzat ondore gutzietarako (beraz, baita GSLOTBren 174.3 artikulua aplikatu eta alarguntasun-pentsioa eskuratu ahal izateko ere)³³. Alabaina, bertan erregistratzeko bikotekideetako batek behintzat Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean eduki behar du egoitza, eta ez da begiratu beste bikotekideak zer herritartasun duen (2.1 eta 3.1 artikulua).

Bestalde, izatezko bikotearen eraketa —eta izatezko bikotea badela— nahitaez egiaztatu behar da Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroak emandako ziurtagiriaren bidez (3.2 artikulua). Nolanahi ere, herri batzuek udal-erregistroak dituztenez, erregistro horietan egiten diren inskripzioek eraketa-ondorio bera izango dute, baldin eta inskripzioa egitean legeak ezarritako betekizunak (gorago zehaztu direnak, alegia) betetzen badira; edozein kasutan, Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroak egiaztatuko du betekizun horiek bete diren (3.3 artikulua).

³² Erregistro hori ekainaren 22ko 124/2004 Dekretuak arautu du (2004ko uztailaren 14ko EHAA, 133. zk.).

³³ Ondoriozta daitekeenez, erregistro horretan inskribatzea betekizun eratzaillea da, *ad sollicitudinem* alegia. Hala aitortu du jurisprudentziak ere [ikus Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 4. salako 2011ko ekainaren 14ko epaia (1134/2011 erre. zk.)].

BIBLIOGRAFIA

- ALARCÓN CASTELLANO, M.M. eta ROLDÁN MARTÍNEZ, A. (2009). «Algunas reflexiones críticas sobre la pensión de viudedad de las parejas de hecho». In *Revista de Trabajo y Seguridad Social*. CEF, 59. zk.
- BORRAJO DACRUZ, E. (2011). «Pensión de viudedad y parejas de hecho: acreditación de la convivencia (1)» In *Actualidad Laboral*, 2. zk. (LA LEY 15583/2010).
- DE AMUNÁTEGUI RODRÍGUEZ, C. (2002). *Uniones de hecho. Una nueva visión después de la publicación de las leyes sobre parejas estables*. Valencia: Tiran lo Blanch.
- DESDENTADO DAROCA, E. (2009). *La pensión de viudedad ante los nuevos retos del Derecho de Familia: un estudio crítico para una prestación en crisis*. Albacete: Bomarzo.
- LAMARCA I MARQUÈS, A. eta ALASCIO CARRASCO, L. «Parejas de hecho y pensión de viudedad» (2007). In *InDret. Revista para el Análisis del Derecho*, 4. zk.
- MELLA MÉNDEZ, L. (2012). «El concepto “pareja de hecho” a efectos de la pensión de viudedad». In *Revista Doctrinal Aranzadi Social*, 9. zk. (BIB 2012\17).
- MOLINER TÁMBORERO, G. (2012). «Parejas de hecho y pensión de viudedad». In *Diario La Ley*, 7817. zk. (LA LEY 2183/2012).
- MOLINS GARCÍA-ATANCE, J. (2008). *La reforma de la Seguridad Social por la Ley 40/2007. Incidencia de la legislación autonómica en la pensión de viudedad de las parejas de hecho*. Zaragoza: El Justicia de Aragón.
- POQUET CATALÁ, R. (2013). «El acceso de las parejas de hecho a la pensión de viudedad: ¿Una realidad?» In *Temas Laborales*, 119. zk.
- RODRÍGUEZ CARDO, I.A. (2011). «Pensión de viudedad, parejas de hecho y Comunidades Autónomas (a propósito de la remisión a la legislación autonómica en el art. 174.3 LGSS)». In *Actualidad Laboral*, 20.zk. (LA LEY 17675/2011).
- TOSCANI GIMÉNEZ, D. (2008). «La reformulación de la pensión de viudedad en la Ley 40/2007: algunas reflexiones críticas». In *Revista de Trabajo y Seguridad Social*. CEF, 33. zk.